

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Poluzioak bihotzari nola egiten dion kalte aztertu dute

HIRI ASKOTAKO AIREA kutsatuta dagoela gauza jakina da. 2002an egindako ikerketa batean behatu zenez, karbono monoxidoa 1,1 ppm (milioi partikulako hainbat) handitzean hilkortasuna %1,7 handitzen da.

Berriki, Frantziako Montpellier eta Avignon-eko unibertsitateetako ikerlari talde batek arratoiak karbono oxido kopuru handi samarra –kutsatutako hiritan izaten den adinakoa– zuen gela batean eduki zituen lau astetan, eta arratoien bihotzetan ez-normaltasunak agertu ziren. Batetik, bihotzak handitu egin zitzaizkien, eta bestetik, askok arritmia izan zuten. Handik pixka batera hainbat arratoi bat-batean hil ziren, ziurrenik arritmien eraginez.

Arratoiekin egindakoa ezin da gizakiarekin egin, baina arestian aipatu ikerketa-taldeak gizakia bere habitat naturaletik irten gabe aztertu nahi du, behaketarako tresna aurreratuak erabiliz. Ziur daude hiri poluituetako pertsonen bihotzetan gertatzen denak arratoiei jazotakoarekin antz handia izan dezakeela.



Ebakuntza-geletarako arropa bereziak

ZIRUJAEUK, ebakuntzak egiteko unean, argi bizia izaten dute inguruan, eta hotza baino izerdia egiten dutela esan daiteke. Baina hori ez zaie gertatzen ebakuntza-geletan dauden laguntzaileei, are gehiago, normalki gel horietako temperatura hotza izaten da eta zirujauen laguntzaileek hotza jasan behar izaten dute, askotan ordu luzez. Albertako Unibertsitateko (Kanada) Ospitaleko Barry Finegan irakaslea kezkatuta zegoen horrekin, eta arropa hobetzeko proiektua abian jarri zuen. Une honetan, amaitzear dago proiektua: txaketa berezia diseinatu dute, eta hainbat proba egiten ari dira harekin.



WWW.SAN.GVA.ES

Hiritan pilatzen den beroa gutxitzeko, pintatu teiatuak zuriz

Koloreak, askorentzat, estetik elementu hutsak baino ez dira. Baina koloreen arabera, materialek beroa xurgatu ala islatu egin dezakete. Hala, teiatuak zuriz margotuz hiriak freskatu daitezkeela adierazi berri du ikerketa-talde batek. Modu horretan beroketa globalaren ondorioetako batzuk arindu daitezke.

<http://ttiki.com/11693> (Gaztelaniaz)

Milioi bat dolar arazo matematiko bat ebazteagatik

Fundazio estatubatuar batek milioi bat dolarreko sari bana ematen du zazpi enigmako zerrenda batetik bakoitza ebazten duenarentzat. Orain dela gutxi, Grigori Perelman errusiarrak Poincaré-ren konjektura ebazteagatik lortu du sarietako bat.

<http://ttiki.com/11695> (Frantsesez)

Gure galaxiako zirru harrigarriak

Planck behategi espazialak bidalitako irudi batzuen bidez, eguzkiaren inguruan dauden zirruak –hau da, gure zeruan ikusten ditugun laino luze bezain finen antzekoei– buruzko datu berriak lor daitezke.

<http://ttiki.com/11696> (Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16